



Barnetasuna

Nortasuna eraiki eta garapen osora iristeko bidea zabaltzen du barnetasunaren lanketak.



Pentsamenduaren eraikitzea

Pentsamendua hezi behar da norberaren bizipenei zentzu betea emateko.



Jokabide eta jarduera autorregulatua

Autonomiaz ikasteko ohiturak hartzean, ikastea bizipen bakarra eta berezia da norberarentzat.



Adimena, gorputza, mugimendua

Betiko ikasgelen formatua aldatzean, sormena, ikaskuntza eta garapen kognitiboa bultzatzen dira.



Ikaskuntzaren dimentsio soziala

Aberasgarri zaigu pertsonak errespetatzea eta jarduera sozial eta kulturaletan parte hartzea.



Bizi ezazu!

Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB) La Salle ikastetxeen erreferentzia markoa da eta ikaskuntzaren oinarrian jartzen ditu kompetentziak, esperientziak, ikaskuntza zeharkakoa eta instrumentala, izaera soziala eta adaptazioa; betiere, ikastetxe bakoitzaren testuingurura moldatuta.



lasalleikastetxeak.org



Hezkuntza eraldatuz, mundua eraldatzen dugu.

ITB printzipio pedagogikoak

Printzipio pedagogikoak



La Salle ikastetxeek abian dute Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB).

Testuinguru berriak gure eskolaren eraldaketa pedagogikoa dakarkigu, ikasteko prozesua beste eredu batean oinarritzeko, eta printzipio pedagogiko sendoetatik abiatuta, bizi dugun errealitatea eraldatu eta gure etorkizuna eraikitzeko.

Printzipio pedagogikoak ditugu gidari, gure proiektuaren oinarri eta adierazgarri. Kalitatea eta balioa dakarkiote gure egitasmo hezitzaileari, haien gainean eraikia baita. Printzipio pedagogikoak dira, finean, Ikaskuntza Testuinguru Berriaren (ITB) muina, egungo gizarteak egiten dizkigun eskakizun berriei emandako erantzun bateratua.



La Salle ikastetxeek behar dutena ematen diote pertsona bakoitzari, pertsona guztien ezaugarriak eta denborak errespetatuta, hori baitu eskolak aberasgarri, aniztasunaren eta jokabide inklusiboaren iturburu. Batera hazi eta hezi nahi ditugu pertsonen nortasuna eta espiritualtasuna.

Barnetasuna

La Salle ikastetxeetan pentsamendua hezi daitekeela uste dugu eta, pentsamendua behar bezala eraikiz gero, pertsonak aldaketaren eragile izango direla, protagonistak etorkizuneko gizartearen eraikuntzan.

Pentsamenduaren eraikitzea

Erabakimen autonomia sustatzen dute La Salle ikastetxeek; izan ere, emozioak, pentsamendua eta jokabideak autonomiaz kontrolatzen ikasteko lekua dugu eskola, bizi ditugun egoera guztietara moldatu eta autoikaskuntzarako aukerak sortzeko.

Jokabide eta jarduera autorregulatua

Adimenaren eta mugimenduaren arteko harreman estuaren jakitun, La Salle ikastetxeek ariketa fisikoa barneratzen dute, zuzenean nahiz zeharka, eguneroko jardueran, munduan gertatzen denarekiko kontzientzia aktiboa izan eta errealitatearen bestelako irakurketak sustatzeko.

Adimena, gorputza, mugimendua

La Salle ikastetxeetako ikasgelak gune sozialak dira eta, parte-hartzea, kooperazioa, solidaritatea, justizia eta balio demokratikoak bultzatzeaz gainera, pertsonen garapen osoa lortu nahi dute, norberaren barnetasunari, izaera sozialari eta ezaugarri kulturaleri erreparatuta.

Ikaskuntzaren dimentsio soziala